2/2026 espedientea

UDAL AUKERAK ZERBITZUA KONTRATATZEKO KONTRATUA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, PROZEDURA IREKI ERRAZTUAREN BIDEZ

Erregulazio harmonizatuko kontratua	□BAI **X EZ**
Izapidearen tramitazioa	**X Arrunta,** □ Presakoa, □ Larrialdia, □ Aurreratua
Mota	□Irekia **X Ireki erraztua** (SPKL, 159.1 art.) □ Ireki erraztu laburtua (SPKL, 159.6 art.)

1. KONTRATUAREN XEDEA

Agiri honetan oinarrituta egiten den kontratuaren xedea izango da EUDELi UDAL AUKERAK zerbitzua ematea, hau da, EAEko toki-erakundeetarako finantzaketa-aukerei buruzko informazio-zerbitzua.

Zerbitzuaren helburua honako hauek dira: EAEko udalek jaso ditzaketen laguntzak eta diru-laguntzak identifikatzea, identifikatutako laguntza eta diru-laguntza bakoitzaren laburpen-fitxak egitea, indarrean dauden laguntza eta diru-laguntza guztien biltegia osatzea eta, azkenik, horiei buruz informatuko duen berripaper bat egitea.

Ildo horretan, UDAL AUKERAK zerbitzuak funtsezko alderdi hauek bilduko ditu:

- ✓ Aldizkari ofizial nagusiak egunero berrikustea: BAO, GAO, ALHAO, EHAA, BOE, Europako araudia.
- ✓ Euskal toki-erakundeetarako finantzaketa-aukera izan daitezkeen dirulaguntzen eta laguntzen deialdi bakoitza identifikatzea, deialdiak biltzea eta aztertzea, eta deskribatutako helburuetarako egokiak direnak hautatzea.
- ✓ Informazio garrantzitsua ateratzea:

- Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak, laguntzaren zenbatekoa, eskaera egiteko epeak eta funtsezko beste alderdi batzuk identifikatuz.
- Deialdi bakoitzari buruzko informazio espezifikoa ateratzea: eskakizunak, baldintzak eta ebaluazio-irizpideak.

✓ Informazioaren laburpena, deialdi bakoitzerako **laburpen-fitxak** sortuz (ikus adibidea I. eranskinean), informazio garrantzitsuarekin.

✓ Fitxa bakoitzean deialdira sartzeko leihatilarako zuzeneko esteka bat ematea.

✓ Fitxetako informazioa euskaratzea.

✓ Egindako fitxak EUDELera bidaltzea

✓ Hileko lehen egunean, **hileko berripapera** bidaliko da (ikus adibidea II. eranskinean). Power point formatuko dokumentu bat da, EUDELek bere bazkideentzat eskuragarri izan dezan. Honako hauek ditu:

- Toki-erakundeentzat indarrean dauden deialdien laburpena, laburpen-fitxetarako estekak sartuta.
- Argitaratu gabe dauden deialdiak, hala badagokio.
- Berripapera euskaraz eta gazteleraz bidaliko zaio EUDELi

✓ Egindako fitxen **urteko memoria** egin.

Kontratuaren kodifikazioa honako hau da: CPV: 79131000-1 Dokumentazio-zerbitzuak

2. ENPRESEN BETEKIZUNAK

Lan-esperientzia azken 4 urteetan administrazio publikoekin lotutako dirulaguntzen eta laguntza ekonomikoen deialdiak identifikatzen.

3. BETEBEHARRAK

Enpresa esleipendunak honako hauek egin beharko ditu:

- Plegu honetan adierazitako eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren zeregin guztiak egitea.
- Zerbitzuak emateko epea betetzea. Aldi horretan, ezarritako zerbitzuak eman behar dira, eskatutako kalitate- eta funtzionaltasun-maila bermatuz.

- Prozesuan zehar, koordinazioa, jarraipena eta kontrastea egitea EUDELek horretarako izendatutako pertsonekin.
- Prozesuan zehar gerta daitezkeen gorabeherak konpontzen direla bermatzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko baldintzak betetzea, bai lan edukietan, bai hizkuntza inklusiboaren erabileran, esperientzia osoan, emakumeen eta gizonen rolak berdintasunean errespeta daitezen.
- Ahozko eta idatzizko komunikazioetan euskararen erabilerari buruzko hizkuntza baldintzak betetzea jarduera osoan, entregatzeko produktuak barne.
- Etorkizunean erabil daitekeen esperientzia osoari buruzko informazio osoa jasotzea eta editatzea, argitaratzeko.
- EUDELen iritziz eskaintzen den zerbitzuaren kalitatea arriskuan jartzen duen eta kontrako ebaluazioa duten langileak kenduko ditu enpresak.

4. ZERBITZUA EMATEKO LEKUA

Enpresa esleipendunaren bulegoetan, EUDELen bulegoetan egiten diren beharrezko bileretan izan ezik.

5. KOORDINAZIOA

Kontratatutako zerbitzua koordinatzeko, enpresa une oro egokituko da EUDELen irizpideetara, lan teknikoei dagokienez, Elkarteak une bakoitzean ezarritako lehentasunetan eta lehentasunezko helburuetan oinarrituta.

EUDELen eta zerbitzuaren enpresa hornitzailearen arteko harremanak espedientearen kontratazioaren arduradunaren eta enpresa esleipendunaren koordinatzailearen bidez gauzatuko dira.

Kontratuaren kontrola espedientearen kontratazioaren arduradunari dagokio, eta hark jarraibideak eman ahal izango dizkio enpresa esleipendunaren koordinatzaileari edo ordezkariari.

6. GAUZATZEKO BALDINTZAK

1. Enpresa arduratuko da dokumentuak prestatzeaz eta adierazitako egunetan emateaz.

2. Enpresa garaiz joango da EUDELek eskatzen dizkion bilera, topaketa edo ekitaldi guztietara.

3. EUDELek ez ditu inola ere preskribatuko zerbitzuaren enpresa esleipendunaren zerbitzuak bere bazkideen artean.

4. Enpresa esleipendunaren erantzukizun esklusiboa izango da soldatak, baimenak eta lizentziak ordaintzea, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzea eta jarraibideak betetzea.

7. PUBLIZITATEA

Kontratuaren publizitatea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratatzaile-profilaren bidez egingo da.

Bilbon, 2026ko urtarrilaren 14an

I. ERANSKINA

FITXA EREDUA
(ADIBIDEA)

XXX. FITXA. BIZKAIA –XXXXXXXXXXX-rako dirulaguntzak

Norentzat: XXXXXXXXXXXXX

Sarbide lotura: Hasiera - Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa

Erreferentziako araudia: xxx/2025 FORU DEKRETUA, abenduaren xx(e)koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, xxxxxx(e)ko dirulaguntzak emateko oinarriak eta deialdia onartzen dituena.

Esparruak: Enplegua

Zenbatekoa: xxxxx €

Aurkezteko epea: 2026/02/28

Laburpena

xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx

Diruz lagun daitezkeen jarduerak

- xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx
- xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx

Gastuetarako aldi hautagarria

Proiektuak **xxxxxxxxxxxxx eta xxxxxxxxxxxxxxxxx arteko aldian** gauzatu beharko dira.

II. ERANSKINA

BERRIPAPER EREDUA

(ADIBIDEA)



Newsletter ENERO 2026

ÍNDICE

- CONVOCATORIAS ABIERTAS .....pág 3-7
- Servicio Udal Aukerak .....pág 8

CONVOCATORIAS ABIERTAS

		Fin de plazo
MINISTERIO PARA LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA Y EL RETO DEMOGRÁFICO	**SUBVENCIONES PARA LA FINANCIACIÓN DE PROYECTOS INNOVADORES PARA LA TRANSFORMACIÓN TERRITORIAL Y LA LUCHA CONTRA LA DESPOBLACIÓN, PROMOVIDOS POR ENTIDADES LOCALES, DURANTE EL EJERCICIO 2025** **Destinatarios finales:** Las entidades locales recogidas en el artículo 3 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, con excepción de las áreas metropolitanas; Otras entidades locales, reguladas por la normativa autonómica, que tengan atribuidas las competencias y tengan la capacidad de gestión suficiente para desarrollar el proyecto para el que se solicita la subvención; Las comunidades autónomas uniprovinciales; Las agrupaciones de entidades locales; Los consorcios adscritos a la Administración Local. **Descripción:** El objeto es la financiación de proyectos innovadores para la transformación territorial y la lucha contra la despoblación promovidos por entidades locales. **Presupuesto:** 40.000.000 €	*Ver FICHA 20/01/2026
Departamento de Euskera, Cultura y Deporte – DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA	**SUBVENCIONES PARA ACTIVIDADES DE PROMOCIÓN, DIFUSIÓN O NORMALIZACIÓN DEL USO DEL EUSKERA DURANTE EL EJERCICIO 2026** **Destinatarios finales:** Ayuntamientos, organismos autónomos municipales y mancomunidades del Territorio Histórico de Bizkaia. **Descripción:** Se trata de subvenciones destinadas a los ayuntamientos, organismos autónomos municipales y mancomunidades, para las actividades que realicen para la promoción, difusión o normalización del uso del euskera durante el ejercicio 2026. **Presupuesto:** 700.000 €	*Ver FICHA 09/02/2026 (13:30 h)

Servicio Udal Aukerak

Convocatorias de ayudas para entidades locales (CAE, Estado, Europa)

*El servicio de EUDEL de información y apoyo incluye:

- FICHA de cada convocatoria + NEWSLETTER mensual
- FAQs Y DOCUMENTOS DE APOYO

https://udalaukerak.eudel.eus

Todas las convocatorias activas y materiales de apoyo están disponibles en la web del servicio